

Urruxolako bodia



Aurreko hillabetietako fotografixak baiño barrixagua izan arren, gaurko hau be ezta atzo goizekua. Izan be, oraintxe pasau barri dira, apirilaren 18xan, berrogeita hamar urte **Benito Lizarralde** eta **Estefania Unzurrunzaga** ezkondu zirala Urruxolako elizan. Bixak dira Oñatiko auzo horretakuak: Benito **Barrenetxe Txiki** baserrikoa eta Estefania **Osiñaganekua**, orain Barrenetxan bizi diranak. Boda-bazkarixa kaleko **Etxeberrria** jatetxian egin euen, **Paulitonian**, orduan esaten zan moduan, eta hantxe ataratakua da argazkixa.

Bertan agerketan diran gehixenak urruxollarrak dira, Barrenetxe eta Osiñagañaneko tartekuak. Baiña beste etxe batzuetako konbidauak be badagoz: **Errota**, **Olate**, **Miruerreka**, **Barrenetxe Haundi**, **Beitti**, **Erostarbe**, **Antxitena** eta abarrekuak. Senide eta lagunen artian Araotz eta Ugastegi aldekuak badira, eta beste auzo batzuetakuak be ez dira falta. Lehenengo illaran, erdi inguruan, **Ziriako Arriaran** abade oñatiarra agiri da, orain Kale Zaharrian bizi eta urte askuan Urruxolako parroko izan zana.

Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeitxek dituzue:

Beheko illaran jarritta: Joxe **Agirre**; Markos **Lizarralde** eta Feliziana **Urkia**, Barrenetxeko gurasuak; **Ziriako Arriaran**, Urruxolako abadia; Estefania **Unzurrunzaga** eta Benito **Lizarralde**, ezkonbarrixak; Anjela **Lizarralde** eta Hipolito **Unzurrunzaga**, Osiñaganeko gurasuak; Antonio **Lizarralde**; eta Hipolito **Barrena**.

Bigarren illaran: Jaxinto **Aranguren**, kontzejuko jueza; Bixente **Lazkano**, soñujole bergararra; Martina **Ugarte**; Pedro **Urkia**; Anastasia **Inza**; Eulogia **Agirre**; Luisa **Zubia**; X. X.; Xanti **Kortabarrria**; Maxima **Lizarralde**; Joxe **Unzurrunzaga**; Maria **Elorza**; Paula **Beitia**; Juana **Oñate**; Maria X, bergararra; Antonio **Larrea**; X. X.; Roman **Elorza**; Martzelino **Larrea**; eta Bitoriano **Madinabeitia**.

Hirugarren illaran: Gregoria **Lizarralde**; Frantziska **Elorza**; Martzelino **Inza**; Karmen, **Estenagakua**; Bixente **Unzurrunzaga**; Martzelino **Zubia**; Maritxu **Unzurrunzaga**; Zelestina X. eta Juan **Unzurrunzaga**, Bilbon bizi ziranak; Euxebio **Lizarralde**; Anastasia **Madinabeitia**; X. X.; eta Julian **Urkia**.

Goixeneko illaran: Markos **Barrena**; Juan **Elorza**; Dolores **Leon**; Edurne **Unzurrunzaga**; Felisa **Barrena**; Eulogi **Unzurrunzaga**; Santos **Unzurrunzaga**; Esteban **Madinabeitia**; Juanita **Barrena**; Nieves **Aiastui**, **Joxiuen**; eta Inazi **Erostarbe**.

Fotografixa honen bidez, seme-alaba eta illobak Estefania eta Benitori euren urrezko ezteixetan zorionik beruenak emuteko aprobetxaiten daue. Eta guk be bai, jakiña.

J. E.

Argazkixa Elvira Lizarralde eskuratutakua da. Argibidiak, berrix, Elvira berak eta Mikel Lizarralde emun doskue. Eskerrik asko!